

## Hasi da eskalada ikastaroa

2015/05/13

Astelehenean hasi zen eskalada ikastaroa eta jadanik 12 pertsona apuntatu dira. Sokarekin eta bulderrean eskalatzen ikasi zuten, baita zortziko bikoitza korapiloa egiten. Hurrengo hiru asteetan jarraituko dute, astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 21:00etara.

"Debagoieneko eskalatzailleak" taldearen bitartez eskaladako hastapeneko ikastaroa da hau. Norberaren kabuz segurtasunez eskalatzen ikastea da helburua. Besteak beste, oinarrizko materiala nola erabili, korapiloak egiten ikasi, eskalada motak ezagutu, eskalatzen ikasi eta segurtasun arauak irakasten dira.

